

OIARTZUN / Ramon Zulaikari buruzko liburua aurkeztuko dute etzi goizean liburutegian

Xabier Susperregi eta Xose Estevez dira liburuaren egileak; erakusketa ere inauguratuko dute

N. VEGA

Etzi goizean, 11:30ean, Ramon Zulaika zenari buruzko liburua aurkeztuko dute Xabier Susperregi eta Xose Estevez egileek Manuel Lekuona Bibliotekan: Ramon Zulaikaren kontuak/Cosas de Ramón Zulaica. Ramon Zulaika idazlearen bizitzaren eta lanaren isla izan nahi du liburuak.

Besteak beste, Xose Estevezek, Juan Garmendia Larrañagak, Felix Maraňak, Palmira Sullivan-ek, Joxe Mari Isasak, Gau Eskola taldeak eta Enrique Samaniegok egindako Zulakiaren bizitzari buruzko aipamenak biltzen ditu liburuak; baita Xabier Susperregik egindako biografia bera ere.

Aldi berean, Zulaikaren lanak eta bere bizitzaren hainbat irudiren argazki erakusketa inauguratuko dute liburutegian.

Liburua aurkeztu ondoren, plaka bat inauguratuko dute nobelagilearen omenez, berak gehien maite zuen herriko txokoetako batean; hilerri zaharrean, norbaitek gaizki jarritako eguzki erlojuaren ondoan.

Idazle, antzerkigile, zinemagile

2009ko abuztuan hil zen Ramon Zulaika idazlea (1929-2009). Jaiotzez donostiarra zen, gaztetan Madrilén arkitektura eta zinema ikasi zituen, musikazalea (Aita Donostiaren iloba zen), antzerkigilea eta zinemagilea ere izan zen.